



Izena emateko epea luzatu da, IVAPek Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan antolatutako bi prestakuntza-ikastaro online egiteko. Hasierako epea uztailaren 9ra artekoa zen.

- **"Emakumeen kontrako indarkeria: oinarrizko ikastaroa"**, gaztelaniaz.
(25 ordu, 2021-10-04tik 2021-11-15era).

Prestakuntza-ekintza honetan, lehentasuna izango dute Indarkeria-Epaitegi Espezializatuetan eta gai horretan eskumenak dituzten Epaitegi Mistoetan eta Fiskaltzan lan egiten duten langileek.

- **"Haurren eta nerabeen kontrako sexu-abusuak: oinarrizko ikastaroa"**, euskaraz.
(30 ordu, 2021-10-04tik 2021-11-22ra).

Prestakuntza-ekintza honetan, Instrukzioko Epaitegietan, Epaitegi Mistoetan eta Fiskaltzan lan egiten duten langileek izango dute lehentasuna.

GARRANTZITSUA: izena eman duten pertsonak ez dute berriro izena eman behar.

"Haurren eta nerabeen kontrako sexu-abusuak: oinarrizko ikastaroa"
ikastaro berria, gaztelaniaz, (30 ordu, 2021-10-04tik 2021-11-22ra).

HIRU IKASTAROETARAKO:

Izena emateko epea: 2021eko irailaren 09ra arte (egun hori barne).

Izena emateko modua: eskabide-fitxa bidaliz, behar bezala beteta. Fitxa hori enpleguaren atarian dago.

Eskaria bidaltzeko helbidea: justizia.prestakuntza@euskadi.eus

Ikastaroen fitxa teknikoa erantsita dago.